


Felixa

"Ametsetan ari denak
ez du inoiz uste
ametsa amets duenik
argiak itzaltzen dion arte."

J.A. Artze - "ORTZIA LOREZ, LURRA IZARREZ"

Mikel Arrizabalaga

ERROBI eta Baztango haranen artean gailentzen diren mendien sakan eta mazeletan zehar, gizakiaren bilakaeraren lekuko izan diren aztarnekina batera, naturak bortizki zizelatutako gutziarik aurkitu ahal izango ditugu. Errolanen ataka mitikotik abiatu, Artzamendiko tontorra desitxuratzen duten eraikuntzetatik pasa eta Mehatze lepoko monumentu megalitikoaren ingurura helduko gara, historian zehar bidaiatzeko parada izango dugularik. Itsusiko haitzetan, berriz, amildegiak, bidezidorrak, putreen habiak, ezproiak, korridoreak, urjauziak... kontraste handiz beteriko parajeak, hamaika sentsazio ezberdinez gozatzeko inguru paregabea. Magikoa benetan!



1

Errolanen Itsusiko



2

IBILBIDEA

■ Laxia eta Errolanen Ataka

Errolanen Atakan eman diogu hasiera ibilaldiari. Errolan euskaldunengandik ihesi zihoala, bere zaldiak kolerak harturik mendiatara hau ireki zuela diote batzuk, eta Karlomagnoaren ilobak bere tropekin Zaragozara zihoala ezpata-kolpez irekitakoa dela diote besteek. Elezahar desberdinak daude Errolanen atakaren jatorriari buruz, baina errealitatea bestelakoa da, Laxiako baserritarrak Itsasu herrira heldu ahal izateko Ategaitzetako haizpitarrean zehar bidea egin beharrek ataka irekitzera bultzatu zituen.


Zubia igaro eta Errobi ibaiaren hertzeko errepide txikiari jarraitu diogu. Bidarraitaino luzatzen den errepidea laster utzi eta eskuinetara jo dugu maldan gora.

■ Betiribitarte baserria

Betiribitarte baserrira heltzen galipotezko errepidea amaitu da eta Artzamendira igotzeko bide-seinale horiak jarraitu ditugu. Ordeka Berdera daraman bide zaharrari heldu diogu eta kasik 600 metroko altueran dagoen ordeka hau zeharkatzean, teilatuak harearrizko harlosez eginak dituzten bordak han-hemenka barreiatuak ikusi ditugu. Bide normaletik at geratzen den Maldako tontorrera igotzeko, eskuinetarantz jo dugu ia ikusgaitz den xenda bat jarraituz.

Bidera itzuli eta arrosa koloreko harearrizko harkaitzen artean, zuhaitz bakar baten ondoan dagoen bordatik, laino artean Artzamendiko "erraldoia" agertzen ikusi dugu lehen aldiz. Azken maldako pikoari ekin diogu eta gailurraren ondoan dagoen sapaldara iritsi gara.

atakatik haitzetara



3

■ Artzamendi

Tontorra erabat desitxurutzen duten eraikuntza erraldoiak ahal dugun moduan saihestuz, ikuspegiaren edertasunaz gozatzeko tarte bat hartu dugu: Larrun, Mondarrain, Hautza, Baigura, Haltzamendi, Urtsuia, Irubelakaskoa, Iparla, Ori... Gizakiak, zientzia eta komunikazioaren izenean eraikitako "monumentu" zatar horiei bizkarra emanez, Mehatzeko lepora jaisteko mendia zeharkatzen duen (zauritzen duen) errepidean barna jaisten hasi gara.

■ Mehatzeko lepoa

Lapurdi, Nafarroa Behera eta Nafarroako lurraldeak elkartzen diren lepo honetatik gertu Burdin Aroko zenbait harrespil aurkitu ditugu. GR-10aren marka zurigorriek lehen zatian jarraitu beharreko bidea erakutsi digute. Berehala, metro batzuk beherago, garotan etzanda dagoen iruinari eder batean markak ezabaturik. Margotzeko beste lekuri ez eta monumentu megalitiko ikusgarri hau aproposena! Bidetik at, metro batzuk gorago, harrespil osatuenetako bat aurkitu dugu eta bere zazpi harri handiek osatzen duten zirkuluaren barruan "81" mugarria! Nonbait, XIX. mendean mugarriak jartzeari ekin ziotenean harrespilaren erdian jartzea baino leku hobeagorik ez zitzaien bururatu.

■ Zelaiburuko lepoa

Bidera itzuli, garo artean zabaltzen den bide zabala jarraitu eta "82" eta "83" mugarrien ondotik pasatzean ezkerretara pagadi trinkoa laga dugu. Parez-pare panoramika ikusgarria zabaldu zaigu: Iparlaren harresi luzea eta Irubelakaskoaren piramidea. Berehala heldu gara Zelaiburuko lepora eta behean, sakan zirraragarri hau amaitzen den lekuan, Aritzakun eta Urritzateko haranak elkartzen diren lekuan, Sumusakoborda ageri da. Bidezidorra hartu eta oso pikoa den malda sigi-sagan jaisten hasi gara Itsusiko lehen haitze-

1 Errolanen ataka eta Errobi ibaia I

2 Artzamendira heldu aitzin azken maldan. Pic Malda behean

3 Artzamendi gailurrean "erraldoia" I

4 Mehatze lepoko harrespila I. Atzean Irubelakaskoa



4

ra igotzeko garo artean zabaltzen den xendarekin bat egin arte. Puntu honetan GR-10a utzi dugu. Beherantz jarraituz gero eta Aruxia baserrira heldu aurretik, Harpeko Sainduaren kobazuloa ezagutzeko aukera dugu. Baztan eta Errobiko bailaretan oso ezaguna da giza-itxura duen estalagmita honen uren sendatzeko gaitasuna. Hona jaisteko bidea oso malkartsua da eta bisita hau beste ibilaldi baterako utzi dugu.

■ Itsusiko haitzak

Beraz, puntu honetan GR-10a utzi eta garo artean marrazten den xendatik Martikoeneara iritsi gara. Hemen ikuspegi erabat aldatu da: orain arteko zelai lau eta belartsuak Aritzakungo harneraino 400 metroz jaisten diren lehen paretak ikaragarriez ordezkatzen dira. Borda zaharraren aztarnen ondotik pasa eta bidezidor hestua jarraitu dugu. Lepo txiki bat gaingitu eta Itsusiko ezproi nagusira igo gara, beherago hirugarren haitza eta Epaltza punta, bost metroko haitz zorrotza. Igoera txikia da baina ohiturarik ez duenak hobe du behean geratzea. Bidea iparralderantz zuzentzen da. Epaltzako erreka igaro eta laugarren haitzera igo gara. Saroe abandonatuaren ondotik Epaltzako ur jauzia ikusteko parada izan dugu. Laurogei metroko ur jauzi honek zaldi baten isatsaren itxura hartzen du, baina udan joanez gero, ez dugu ikuspegi horretaz gozatzeko aukerarik izango, oso ur gutxi ekartzen baitu.

Baina bada paisaia honetan ohikoa bihurtu den beste osagai bat: saia. Pirinioetako isurialde honetan dauden koloniarik garrantzitsuenek babesa bilatu dute sakan malkartsu hauetako paretetan.

■ Estebe borda

Harrizko itxitura bat inguratu eta 5. haitza izan daitekeenaren ondora heldu aurretik, eskuinetara ikusi dugun pista barrena abiatu gara. Laster Iguzkizelaira heldu gara, bidegurutze baten ondora. Eskuinetara, Iguzkimendi inguratuz Mehatzeko lepora doana utzi eta ezkerretara, Veaux lepora doana hartu dugu. Pista oso zabala da eta lepora iritsi aurretik berriro bat egin dugu GR-10aren bide-seinaleekin. Errepidea gurutzatu eta Estebe bordara igo gara. Gîte d'étape (aterpe) hau leku egokia da atsedena hartu eta kantinplorak urez betetzeko. Bide-seinaleak bilatu eta etxearen atzeko aldetik abiatu gara, eta altuerarik galdu-irabazi gabe, ia hiru kilometro bete ditugu xenda eroso batek Zuharretako lepoan utzi gaituen arte. Parez-pare Urrezitiko haitzak ditugu eta atzerago Mondarraingo gotorlekua. Erebi eta Atxulegiko gainak inguratuz

Ainhoa herriraino doan bide zabala utzi eta malda piko bati ekin diogu. Haitzetara heldu eta Mondarrainera igotzen hasi aurretik biak banatzen dituen lepora jaitsi gara.

■ Arranomendi edo Mondarrain

Gure aurrean, kuartzitazko blokeez inguratutako harkaitzezko frontea ageri da. Belardian ikusgaitz den xenda bilatu dugu eta azken metroak haitzen artean bete. Erromatarren gotorleku baten hondakinak gordetzen dituen mendi eder honek Lapurdiko eta euskal kostaldeko panoramika bikaina eskaintzen du. Behean, Legarreko mendatetik datorren errepidearen ondoan Harlepoko haitzak ikusi ditugu, Laxiako auzora jaisteko aukera eskainiz. Inguruari azken begirada egin eta lepora itzuli gara garo-lekua zeharkatzen duen bidea bilatuz. Aldapa pikoa da eta berehala heldu gara errepidean dagoen baserri baten ondora. Kilometro erdi pasatxo bete eta Harlepoko haitzen ondoan, bihurgune handi batean, ezkerretara xenda bat bilatu dugu baina ez dugu aurkitu. Errepidean barna jaisten jarraitu dugu eta hurrengo bihurgunean ezkerretara jo dugu Garro baserriaren ondora heldu arte. Bide zaharra hartu eta berehala ohartu gara abiapuntutik gertu gaudela. Laxia erreka uren murmurioa eta autoen motoren hotsak nahasten dira lehen etxean ondora ailegatzean. Jatetxeak beteta, Errobiko ur-lasterretan jendea bainatzen, Errolanen Atakan turista mordoa argazkiak ateratzen... eta gu, zer? **Errealitatetik ihesi!** □

■ FITXA TEKNIKOA

Nola heldu


● Kanbotik Donibane Garazira doan errepidean barna, Itsasu herria zeharkatu eta Errolanen Atakara joateko ikusiko ditugun bide-seinaleak jarraituko ditugu. Haizpitartea pasa bezain fite Laxia auzora helduko gara.

Ibilbidearen datu orokorrak

- Luzera: 21 km
- Desnibela: 1280 m
- Denbora: 7 ordu eta 15'
- Zailtasuna: ertaina

Ibilbidearen datu zehatzak

LEKUA	ALTUERA	LUZERA AKUMULATUA	DENBORA AKUMULATUA
Laxia-Errolanen Ataka	40 m	0 km	0 ordu
Betiribidartea baserria	276 m	1'5 km	35'
Pic Malda	580 m	3 km	1 ordu 15'
Borda	585 m	4 km	1 ordu 30'
Artzamendi	926 m	5 km	2 ordu 10'
Mehatzeko lepoa	716 m	6'75 km	2 ordu 30'
Zelaiburuko lepoa	630 m	8 km	2 ordu 50'
Bidegurutzua	570 m	8,25 km	3 ordu 10'
Martikoenea (1. haitza)	625 m	9 km	3 ordu 20'
Erdiko ezproia (2. haitza)	629 m	9'5 km	3 ordu 35'
Epaltza punta (3. haitza)	615 m	9,75 km	3 ordu 45'
Epaltza ur-jauzia	545 m	10 km	3 ordu 50'
4. haitza	600 m	10,5 km	4 ordu 10'
Iguzkizelai-Pista	660 m	11,5 km	4 ordu 25'
Veaux mendatea	567 m	12 km	4 ordu 40'
Estebe borda-Gîte d'étape	580 m	12,5 km	4 ordu 50'
Zuharretako lepoa	560 m	15 km	5 ordu 15'
Urreztko haitzak	693 m	15,5 km	5 ordu 40'
Mondarrain	749 m	16,5 km	6 ordu 05'
Harlepo	322 m	18,5 km	6 ordu 30'
Garro baserria	224 m	20 km	6 ordu 50'
Laxia	40 m	21 km	7 ordu 15'



5

Bibliografia


- Euskal Herriko mendiak. 300 ibilbide. Miguel Angulo. ELKAR 1988.
- Euskal Herriko mendiak. 400 ibilbide. Miguel Angulo. ELKAR 1995.
- Pirinioak I: 1000 igoera. Miguel Angulo. ELKAR 1992.
- Euskal Herriko 100 gailur eta 1000 txoko. L.P. Santiago. ELKAR 1990.
- Euskal Herriko ingurune gordeak. Miguel Angulo. ELKAR 1987.
- Euskal Pirineoa. L.P. Peña Santiago. ELKAR 1988.
- Euskal Pirineoa. L.P. Peña Santiago. ELKAR 1988.
- Parajes Naturales de Euskal Herria. Mikel Tellagorri y Enea Itxina. SUA.
- GR 10 Pyrénées Occidentales. Fédération Française Randonnée Pedestre. 1988.
- Mendiak III. Varios autores. ETOR 1982.
- Euskal Herriko mendien katalogoa. EMF - Pyrenaika. 1990.
- Pyrenaika aldizkaria 157 zbk. (1989).
- Bidaide gogaide. Egunkaria.com.

Kartografia



- IGN carte n° 1345. Cambo-les-bains. 1:25.000.
- Carte des Randonnées. Pays Basque Ouest. Pyrénées carte n° 1. 1:50.000.

Mendizaleak

- Hodei Arrizabalaga eta Mikel Arrizabalaga.



6



- 5** Zelaiburu Martikoeneako maldetatik
- 6** Mehatze lepoko iruinaria II
- 7** Mondarrain II

Las Peñas de Itsusi a través del Pas de Roland

A Felix Iñurrategi
"Ametsetan ari denak ez du inoiz uste ametsa amets duenik argiak itzaltzen dion arte."

J.A. Artze - "ORTZIA LOREZ, LURRA IZARREZ"

A través de las laderas y hondonadas de los montes que emergan

en los valles Errobi Baztán, junto a los restos prehistóricos que han sido mudos testigos de la evolución de la humanidad recorreremos zonas que la naturaleza ha esculpido caprichosamente. Tendremos la oportunidad de viajar a lo largo de la historia y para ello partiendo del mítico Pas de Roland pasaremos por la cima desfigurada de Artzamendi y descendiendo hacia el collado de Mehatze encontraremos varios monumentos megalíticos. Al llegar a las Peñas de Itsusi el cambio es brusco; barrancos, senderos, nidos de buitres, espolones puntiagudos, estrechos corredores, cascadas... paisajes de grandes contrastes, entorno incomparable donde podremos gozar de un sinfín de sensaciones. ¡Un lugar mágico!

